

**Azaroaren 11ean**, arrastiko **19:30retan Kultura eta Kirola** arloetako batzarrari hasiera eman zaio, kultur-etxean. ( 18 pertsona, 11 herritar- 7 zinegotzi)

Lehenengo eta behin orain arteko eskarien jarraipena egin da.

Gaien jarraipenak, orain arte eskatutakoak eta **pendiente gelditu direnak**:

- Kultur etxean aire girotua ipintzea
- Kiroldegiko spinning ikastaroan adibidez, abisu sistemaren bat ipintzea (SMS bidez...) jendeari ikastaroa noiz den gogorarazteko
  - o ez da ikusten.
- Arratia mailan akorduren bat egitea, udan igerilekua erabili ahal izateko adibidez. Lemoagaz, Areatzagaz dagoen hitzarmenaren antzekoa egitea.
- Kiroldegia egunero zabaltzeko eskaria. Alde batetik ia zergatik ixten den ziklokross egunetan eta bestetik ia abuztuan zergatik ixten den kiroldegi osoa.
  - o ekonomikoki ez da bideragarria
- Bazkidetza egiteko aukera aldatu: hiru-hileka.
  - o 6 hilabetekoa onartu da. bai urte hasieran eta bai amaieran.
- Futbol zelaiaren belarra aldatzea.
  - o Abuztuan diru laguntza bat eskatu zen, oraindik ez dago emaitzarik
- Zinean 3D ikusteko aukera aztertzea.
- 0-2 urte bitartekoentzat eskaintza: aterpeak herrian.

**Eskaerak:**

- Arantzartek entsegu gelako lurra aldatzea eskatu du. Laban egiten ei du lurrak.
  - o Aukera 2 daude:
    - Egurrari laban ez egiteko tratamenduren bat ematea
    - Egurra aldatzea
- Boulderraren barruan egoten diren gazteei alternatiba bat ematea, skate pista bat egitea errugbi zelai berriaren inguruko landaren baten.
- Bizikletak garbitzeko lekuren bat.
  - o Errotonda berriarekin batera joango da, gasolindegia inguruan.
- Ikasgela intsonorizatzea.
- Pampa lanadara heldu da Igorrera. Ebakitzea eskatzen du herritar batek.
  - o Ez da nahikoa ebakitzearekin, zerbait gehiago egin beharko litzateke
- Arantzarteri Janire teknikariarekin kontaktatzea kostatzen zaie.
- Zirkukoek koltxonetak behar ez tiren lekuan uzten dituzte.
- Pilates zergatik gutxitu den 10 minutu iazko urtetik hona galdetu du ikasle batek.
  - o Berez 50 minutukoak direla argitu da, eta ez 60 minututakoak.
- Ikastaroetako asistentzia kontrolatzeko eskaera. Itxaron zerrendak daude eta klaseak ez daude beteta.
- Hiru hileka egiten diren ikastaroetan, asko faltatzen den jendeak ez dezala lehentasun bera eduki.
- Orbitik Arantzazurainoko bidegorria osatzea.
- Grabetik Arantzazuraino espaloia edo bidegorria egitea.
- Dantzako entsegu gelan 3 aldagala daude. Asteburuetan antzerki edo ikuskizunen bat dagoenean aldagelak itxita egoten dira. Ikuskizuna zapatuz edo domekaz denean zergatik egoten dira ostiralez behar dituzten aldagelak itxita?
- Entsegu gelako eskumako aldageletako dutxetako ura ez da arketetara joaten. Ura komun eta aldagela osoetara joaten da.
- Auzoetako jaiak berreskuratzeko zeozer egitea.
- Herriko jaietarako orokorrean aurrekontua igotzea
- Boulderrean eskalada ikastaroak eskaintzea. Emakume eta umeentzako ez ezik, nahi duen guztiarentzako.
- Goiko plazako frontoian argia.